

hoy escribe

Orain

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «Txillardegi» | *Idazlea*

Guk orain erakutsi behar dugu, geure lanaz eta geure ekarpenez, «claque» txalojole merkea baino gehiago izateko gai bagarela. Non? Zertan? Hori norberak behar du ikusi, aztertu eta hautatu.

Egun hauetan askotan oroitu naiz Telesforo Monzon- ez. Eta behin eta berriz etorri zait gogora Donibane Lohitzune-ko «Mende Berri» bere etxean, 1981ko martxoan, izan genuen geure arteko azken elkarrizketaz.


Bihotzaren ahuleziak jota zegoen jadanik. Eta gogoeta gisa, bere tema baztergaitza hitzetan jarri, abertzaleok elkarganatzekotan hamaika saio alfer egin ondoren, eta azken errege gisa ere bai, nik uste, hauxe esan zidan: «ETAk ez du aski indarrik berak bakarrik Euskadi asmatzeko. Era berean, PNVak ere ez». Eta ez zuen besterik erantsi. Herri Batasuneko parlamentaria zen mementu hartan.

Garbi agertzen zitzaion bi indar horiek nola-hala elkar- tu beharra. Batu beharra ez, agian, esan ohi zuen; baina elkar aditurik jokatu beharra, bai. «Necesitamos conseguir una acción concertada de ETA y el PNV», idatzi zuen halako batez.

Ez zuen gizarajoko «Lizarr-Garazi» akordioa ezagutu, ezta honen ondorioz sortu den giro berri esperantzagarri hau. Guk bai.

Baina ez dakit lorpenaren garrantziaz ongi jabetzen garenez, eta gure herriak egindako aurrerapenez konturatzan. Ezetz esango nuke. Madrilte eta Parise, bai, ederki konturatzan dira. Berauen hizkerari darion amorrazio etsian ezin garbikiago ageri denez.

Hots, abertzale askori iruditzen zaiguzue, Espainia-ko «intelligentzia» (Savater, Juaristi, Arteta, etabar) jo-take, eta zorna darioarik, lan-ean arri ikusten badugu ere, gurea, intelektual eta artista abertzaleen multzoa, oro har,



multzo gisa, maingui dabil; eta mutu xamar. Eta ez inondik ere behar genuen mailan. Ene uste apalaz.

Noizko gure idazle, unibertsitari eta artista konprometitu- en mezu? Mezu eta beroren ondorio bideak, noski.

Mezu ausarta behar du gure herriak, mezu zehatza, eta hemendik edo handik ekintzatan oratua. Eta orain behar du, gaur bihar baino hobea. ETA isilduta, gure mementu etorri baita.

Eta gure herriak orain, esperantzaz osatutako lilura guri honetan, gure buru- belarri borrokan parte ez hartzea, ez bailiguke inoiz barkatuko.

Orain ez da epe luze- rako ideologia landutan eta fi- bardura zorrotz teorikotan

akitzeko unea. Orain, Lizarr-Garazi Akordioaren bi- detik, lan egin eta borrokan deliberatuki parte hartzeko tenorea da. Nork bere modura eta bere gaitasunen arabe- ra, jakina. Baina herriarekin eskuz esku egin. Eta bor- rrokan, borrokan eta borro- kan. Borrokakide leial jokatuz, eta ez estratosferako ikertzaile gisa.

Telesforo bizi izan ba- litz, hauxe esango ligu- ke gure ditziratsua hauetan. Gure geroaren abiapuntua iritsia baita.

Lapurdik eman duen idazlerik handiena ere min- tza begi: «Utzen baduzu, nola eztaizula, ari eskuen artean duzun denbora iragai- tera, egin da, galdu da, ezta gehiago bihurtzerik... fraga-

na eta ethorkizuna eztra gure. Ioana ioan, ethorkizuna ethorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik» (Axu- lar, «Gero»).

«Lizarr-Garazi»-ren pro- feta izana, Pedro Daguerra Azpilikueta «Axular» fama- tua, Urdazubin jaio zen, eta Iruñean apaiztu (Nafarroan); eta Donibane Lohitzunen eta Saran egon apaiz (Lapur- din). Berak ere... «mugari ti- ro!»; Telesforo bergararrak geroa eragingo zuen bezala.

Eta Axularren mezu- a, liburuari izena ere emateko modukoa, hauxe izan zen funtsean: egitekoak ez gero- rako uztea.

Eta, hortaz, gaur zer? El- karturik jokatzeko tresna gauzatu delarik, zeren zai orain?

Frankismoaren seme-ala- ba garenok inork baino ho- beki dakigu «marjinalismo- an» mogitu beharra zer den. Neronek esango: gaingitu beharra zen egoera hitza.

Urte askotan barrena, oposizio- lan abertzalea diru- rik gabe egin behar izan ge- nuen, desorduetan, loaren kaltetan, instituzio guztieta- tik at. Lan eskergabea izan da aberri- gintza oso luzaz.

Aldatu egin dirauz, ordea. Eta profesionaleria- ren arriskuak begibistan ba- daude ere, aro berrian bizi gara. Bai politikagintza, bai sindikalagintza, eta bai kul- turgintzan ere, gaur egun alor zabalak, eta funtsezko- ak, eskuarreen ditugu.

Orain lanen banaketa egin behar da, nor bere eremuan kokatuz.

Koordinaketa-lana ere egin behar da. Hau bai. Eta horixe da «Lizarr-Garazi Akordioa» bideratu eta gauzatu duten erakunde- dei eta buruzagiei eskatu behar zaiena, eta jadanik eska- tzen dieguna. Eta «egin» gabe, zailago jarri digute- na, jakina.

Baina lana, honetan edo hartan bultzatzea, «asto- lana» nahiago baduzue (eta barkal), alor bakoitzean ma- mitu eta burutu behar den eginkizunen zama, nork be- re esparruan egiteko, orain behar da egin. Buru- belarri egiteko, inoiz baino sakon eta sutsuago egiteko, orain. Guk orain erakutsi behar baitugu, geure lanaz eta geure ekarpenez, «claque» txalojole merkea baino gehiago izateko gai bagarela.

Non? Zertan? Hori norberak behar du ikusi, aztertu eta hautatu.

Baina gaur, eta zai, eta non lan egin ezin asmatu- rik? Otoi!

Gaur lanera denok!

Desfile de la victoria

José M. RIPALDA | *Profesor de la UNED*

Ha bastado con que ETA se echara un poco a un lado para que se desbordara incontenible el capital simbólico acumulado con una entidad incluso más real que todos los años de historia común y de comunidad económica en España.

Hace tiempo que los antiguos progres, en vez de hablar de «revolución», nos citan «los países de nuestro entorno». Así, también en éstos la Policía es un instituto militar. No hay de qué extrañarse si la Guardia Civil sale a desfilar con los tanques por La Castellana un doce de octubre.

Claro que hay constelaciones ominosas. Lo es que la Fiesta Nacional española se reinstaura en la fecha del antiguo Día de la Raza franquista, que ese día sea también el de la Patrona de la

Guardia Civil, que se celebre en el día de la Virgen más emblemática del Franquismo, que pretenda conmemorar especialmente como Día de la Hispanidad a España como imperio que fue, y que se celebre con un desfile militar-policial.

La cosa es aún más llama- tiva, porque se yuxtapone sin más palabras —de ellas se encarga la «morralla» socialis- ta, esos advenedizos políti- cos— a la creciente reivindi- cación nacional en la periferia del Reino.

Y es que el imaginario de España es «moderno», asepi-

co, cromado como un cuarto de baño: «Europa» y «Demo- cracia». «Europa» es algo que se nos impone desde arri- ba, no se sabe muy bien si como la subida del nivel de los mares o como la promesa de que no vamos a descender al tercer mundo. «Democra- cia» es una entidad etérea que nos permite no tener que mirar debajo de la alfombra, una especie de desodorante o limpiador de hogar.

El imaginario inconfesado, en cambio, es demasiado cul- tre y se oculta en el momento de presentarse en sociedad. Por el contrario, los imagina-

rios «periféricos» se han con- solidado en estos veinte años de reconocimiento más aparen- te que real. Ha bastado con que ETA se echara un poco a un lado para que se desbordara incontenible el capital simbólico acumulado con una entidad incluso más real que todos los años de historia común y de comuni- dad económica en España; y no sólo en las zonas ricas, si- no incluso en la pobre Gali- cia, nada sospechosa de «in- solidaridad».

La respuesta ha sido una vez más «sostenella y no em- mendalla». Del antiguo triun-

virato fatal, Corona, Ejército, Iglesia, esta última se desmar- ca «prudentemente». Pe- ro el Rey y el Ejército nos han enviado el mensaje clara- mente. Felipe González lo di- jo en su momento: «con las cosas de comer no se juegan».

Esto no es «violencia», porque sólo se amenaza con su uso; los pequeños no pueden permitirse esa elegancia, ridícula en insignificantes. Sólo queda la sumisión; y ésta es incompatible con la dig- nidad del ciudadano, por con- siguiente con la nación. No hay nación española, hay Reino de España.